

LEHENENGO BLOKEA: KOMUNIKAZIOA ETA ESTATU MODERNOAREN SORRERA. ARO BERRITIK IRAULTZA LIBERALAK ARTE

1. GAIA. SARRERA: KOMUNIKAZIOAREN HISTORIAREN TEORIAK ETA KONTZEPTUAK

1. ZEIN DA KOMUNIKAZIOAREN HISTORIAREN IKERKETA EREMUA?

- Edozein giza-ekintza bezala, komunikazioa praktika konplexua da. Bere ikasketak, haiei dagozkion elementu guztiak har ditzake.

Komunikazioa oso ikuspuntu desberdinetatik aztertu daiteke, bai oso garai desberdinetan bai oso ekintza ezberdinetan

- Hausnarketa objektua: Egituraketa, sorrera eta jasotzea; Hedatzen diren ideiak eta baloreak; naturalizatzen diren botere harremanak; Taldeen esku- edo parte-hartze aukerak; euskarrien eta teknologien inguruko hausnarketa; teknologien eskuragarritasuna eta erabilerak.

- Komunikazioa, sortzen deneko testuinguruaren parte da, eta hau eraikitzen eta eraldatzen (edo iraunarazten) laguntzen du.

Testuingurua ulertzeko historia oso garrantzitsua da. Garai ezberdinetan egon diren komunikazio sistema ezberdinak aztertuz, garai horietako pentsatzeko moduak ere aztertzea lortuko dugu

- Komunikazioa gizartearen parte da

2. XX. MENDEKO KORRONTE TEORIKO NAGUSIAK.

(Hemengo autoreek aztertu dutena izan da Komunikazioaren eta historiaren arteko harremana zein den)

- Masa hedabideen sorrera eta garapenarekin lotuta
- Luzaroan norabide bide-bakarra gailendu zen teoria hauen planteamenduan
- Teoria ezberdinak: (Zein da gizartea eta hedabideen arteko harremana? Nolakoa da haien arteko elkarreragina? Jarraian dauden teoriak harreman hori aztertzen saiatu ziren, matematikoa ez hainbeste baina bai beste guztiak)

- I. **Teoria matematikoa.** Claude E.Shannon. Berak planteatu zituen ideiak ondoren gizarte zientzietan aplikatu ziren, garrantzitsua deritzogu, oso

teoria matematiko bat zuen arren, bere teoria eredu hartu zelako gero. Komunikazio elektrikoan oinarritu zen batez ere. Nola iritsi daiteke mezu bat puntu batetik bestera? Eredu oso matematiko edo elektronikoa izan zen. Berak planteatutako horrek, emango zion hurrengo teoriei pausoa.

II. Feedback-aren eredu teorikoa. Norbert Wiener Shannon-en planteamenduaren garapen moduko bat da. Eredu elektronikoa eta matematikoa da baina konplexuagoa dela esan dezakegu, zarata edo distorsio gabe nola iritsi daiteken mezua.

III. Palo Alto (California)-ko Eskola [Elkarrekintzen Soziologia]. Erving Goffman Planteamendu berriak garatuko dira eta bereziki jasotzaileak mezua nola jasotzen duen determinatzen dituen elementuak. Bi pertsonen arteko testuinguruari ematen dio garrantzia.

IV. Ikerketa Funtzionalista (*MassCommunicationResearch*).

Gizarteak aztertzen dituen teoria bat da. *Mass Communication Research*ek komunikazioari aplikatuko dizkio oinarri funtzionalistak.

- Gerra arteko garaia; garapen industrial handia egon zen garaia izan zen
- Komunikabideen eta norbanakoen arteko harremana. Aldendu egingo da ikuspuntu matematiko eta zientifikoetatik
 - Igorleak beti du jasotzailearekiko borondate bat. (jasotzailean erantzun bat sortzea) eskola guztiak ados honekin
 - Komunikazio ekintza on bat ekintzak aldatu ditzake. (Jasotzailearen ekintzak)
- Estatuen helburua: Hedabideak kontrolatzea, jasotzailearen erantzunak kontrolatzeko
- HAROLD D. LASSEWLL
 - Orratz hipodermikoaren teoria = funtzionalitza (berak planteatu zuen lehen aldiz)
 - Rolan asimetria (igorlea eta jasotzailea). Igorlea akzioa egiten duena da, borondatea duena eta jasotzailea pasiboa da. Ez dago intermediaziorik, ez dago kortozirkuitorik bide horretan, mekanikoa da, horregatik da posible manipulazioa, ez baitago intermediaziorik

- Hedabideen botere ahalguztiduna. Laswellen lana, propaganda eta komunikazio politikoaren esparruan hasi zen garatzen, bere helburua zera zen: propagandak nola l.M.Gan jende asko bultzatu zuen gerrara frogatzea. biolentzia erabili gabe, propagandak lor zezakeela, beren interesen alde egiten ez zuen zerbaiten alde borroka egitea. Hedabidearen botere ahalguztidunean sinisten zuen. Mezua ondo egin bazen eta errepikatua bazen jasotzailearen erantzuna moldatu zitekeela.

- ROBERT K. MERTON (ez du ezta aipatu)

- PAUL F. LAZARFELD

- Meziek aurretiko jarrerak aktibatu. Hauteskunde kanpaina baten analisi bat egin ondoren (Ohaiokoa) iritsi zein teoria hau, kanpaina on batek gizabanakoengan, zein eragin izan zezakeen aztertu zuen

- Erantzuna ez da orokortua ezta mekanikoa ere (Ez zen bakarrik mezuak errepikatu errepikatu eta errepikatu.)

Ñabardurak egingo dizkio. Meziek helburu jakin bat dute eta planteatuko du igorle eta hartzailearen artean mezu jakin bat dagoela eta zentzu horretan berak planteatzen du mezu horiek jendearen jarrerak aktibatzen dituztela.

- Setting Agenda. Ez da fijatzen hainbeste komunikatu nahi denarekin edo komunikatu den hori nola komunikatu denarekin. Gaien hierarkia bat inposatzen dute hedabideek, hau da, jendeari zer interesatzen zaion edo zeri ematen diogun garrantzia ematen die (gaien garrantzi-hierarkikoa). Zeri ematen diogu guk garrantzia gehiago,

- JOSEPH KLAPPER (ez du ezta aipatu)

- Orratz hipodermikoaren teoria*.

V. Teoria Kritikoa. Frankfurteko Eskola

Eskola honen barruan sortzen den kontzeptu garrantzitsuena: **industria kulturala**. Totalismoaren garaiarekin batera. Nola politikoki erabiltzen diren hedabideak aztertzen dute.

Teoria kritikoaren lehen hiru autoreak:

- WALTER BENJAMIN (bere buruaz beste egiten du). Gizarte batean *kulturak* duen garrantzia azpimarratzen du. Gizarte zapalkuntza ulertzeko garrantzi handia ematen diote kulturari, mentalitateak aldatu eta moldatzeko garrantzi handia duela ez soilik produktibitateak. Erakusten du nola totalitarismo eta autoritarismoaren guztiz aurka dauden (beren ikuspuntua: marxismo kulturalista). Askotan Benjaminek arteaz hitz egiten du, koadro kultural baten moduan.
 - **Historia:** Ez dago kultura dokumenturik, aldi berean basakeria dokumentua ez denik. Historia garaileek (irabazleen) idatzi duen ideiarekin zerikusia du, dokumentu guztien atzean galtzaileen eta zapalduen historia galdu bat dagoela dio, berak historia zapaldu hauek berreskuratu nahi zituen.
 - **Artearen teknifikazioa eta dominazioa:** Gizaki distraitua moldagarriagoa da. Artearen funtzioa aldatu egin da, bapateko -eta etengabeko- gozamina bilatzen da. Honekin loturik, politikaren (bizitzaren) estetizazioa eman da. **Arte lana bere erreprodukzio teknikoaren garaian (1936).** **OSO GARRANTZITSUA:** Bere pentsamenduaren funtsa. Zinemak nola funtzionatzen duen aztertu zuen, kultura garai ezberdinetan nola produzitzen den aztertu zuen. Alderatzen ditu erreproduzio teknikoaren garaiko artea eta erreprodukzio teknikoaren aurretik zegoen artea. Artearen funtzioa aldatu egiten dela ikertu zuen. Artearen eta gizakiaren artean harreman bat sortu zen, bakarra zena, eta hori garaia araberak aldatuz joan da, artearen erreprodukzio forma aldatu egin da eta artearen funtzioa eta artea ulertzeko modua ere aldatu egin da. Artetari bilatzen dion bakarra da: gozamina da soilik (estetizazio prozesua deitzen dio honi) ez da bilatzen hausnarketarik, soilik momentuko gozamina. Masa hedabideek hau sustatu du, gozaminarako momentuak eraikitzen ditu.
 - **Historiaren filosofiari buruzko tesia (1940)** Lan honetan aurrera goazela zalantzan jarri zuen. Bere galdera: aurrera goaz, edo atzerantz?
- THEODOR W. ADORNO ETA MARX HORKHEIMER *Iluminismoaren Dialektika* 1947 (biak exiliatu egin ziren)

- Industria kulturala: Edozein produktu kultural merkantzia bihurtua. Berri itxura hartu arren, forma artxi-ezagunak eta estereotipatuak errepikatzen ditu eta artearen ahalmen kritikoa disolbatu egiten da ⇒ gizarte konformista eta apatikoa, otzana (dócil, aldakorra) sortzen da. Industria kulturalaren helburua = ez hausnarketa sustatzea baizik eta soilik saltzea. Arteak duen joera kritikoa desagertu egiten da, hortik sortzen da gizarte konformista
 - Industria kulturalaren bidez, arrazoi modernoa (askatasunera, hausnarketara eramango gaituen arrazoia da modernoa) arrazoi industrialean bihurtu da, (transformatu egin da), (kontrolaren eta manipulazioaren zerbitzura dagoen arrazoi forma).
 - Industria kulturalaren adibidea: Mona Lisa kamixeta batean, polita dela erakustea soilik, kamixeta hori janzteak ez du erakusten artea benetan hausnartu denik.



- HERBERT MARCUSE Ikasle mugimendua & mugimendu soziala
Bere lana: Dimentsio bakarreko gizona, 1964 (garai horretako mugimenduetako oso pertsona garrantzitsua “ezkerraren aita”)
- Gizarte industrial garatuetako norbanakoak hedabideen bidez zabaldutako beharizan (faltsu) egonkorreko egoeran bizi da.
- Kontsumismoak eta kulturaren merkantilizazioak, gizakiaren kontzientzia objektu bihurtzen du, dimentsio bakarreko gizakiak sortuz (kapazitate kritikoa baliogabeturik duen gizakia). Gizakiak askatasun handia orain dela asko, gaur egun duen askatasun bakarra produktu bat edo beste bat aukeratzea, beste arrazoi bat Zibilizazio Modernoaren dezepzioa
- JÜRGEN HABERMAS (ez dugu emango)
- Nazismoaren hazkundera eta masa hedabideen erabilpena dominaziorako
- Marxismoarekin bat egiten du, Ikuspuntu kulturalista batetik
- Zibilizazio Modernoak ez du bere proposamena bete. Bere promesa da gizakiok arrazoia erabiltzeko dugun gaitasunari esker

aurrera egingo dugu, progresura eramango gaitu. Egia da gizakiak arrazoia erabiliz aurrerapenak egin dituzte baina dezepzioa da gerrarako erabili dituztela aurrerapen hauek eta ez gizakion askapenerako.

- Gizakiok errealitatea begi kritikoekin begiratzeko dugun gaitasunari esker aurrera egingo dugu, etorkizuna beti izango da hobea gizakiok gai garelako begi kritiko bat izateko, honek progresura eramango gaitu. Arrazoi kritiko edo arrazoia erabiltzeko gaitasun hori gizakien askapenerako EZ da erabili, eta aldiz, gerrarako erabili da. Horregatik esaten da Zibilizazio Modernoak ez duela bere proposamena bete.
- Garai honetako autoreak zinemaren eta irratiazen hazkundearen garai berdinekoak direnez, bi gauza hauek asko aztertu, eta euren ustez biak dominaziorako erabili izan ohi ziren.

VI. Ikasketa kulturalak (Birmingham-eko Eskola).

Interdisziplinarioa da teoria hau, soziologoa eta historiadorea izan zaitezke, ez bat eta puntu. Ikuspegi hau garatuagoa dago herrialde anglosaxoietan. Ikasketa kulturalak ez dute horren erraz onartuko masa hedabideek ideia bat inposatzea eta kitto, Ikasketa Kulturalak herrialdearen kultura eta masa hedabideek bat egin behar dutela diote, negoziazio bat ematen dela eta herriak ez duela irentsiko masa hedabideek esandakoa tal cual, zalantzan jarri gabe. Ikasketa kulturalak azken finean da aurretik finkatuta dauden balioei aurre egingo diena,

Zergatik daukate masa hedabideek hainbeste arrakasta, zabaltzen dituzten ikuspuntuek ez badiete mesederik egiten kontsumitzen dituzten sektoreei?

- RICHARD HOGGART
- RAYMOND WILLIAM
- EDWARD P. THOMPSON
- STUART HALL
- Audientzien erantzunak (Umberto Eco)
- Hedabideak eta **hegemonia** sozialaren erinkuntza
- Dekodifikazio prozesua konplexua dela konturatuko dira, ikusleak mezua jasotzeko modu asko daudelako. Aukera ezberdinak daude, nahiz eta bat lehenesteko indar gehiago izan. Zauden lekuaren arabera, bertsio batek botere handiagoa izango du beste

batek baino adibidez Altsasuko kasuan (hemen egon edo Madrilén).

- Dekodifikazioaren efektu ideologikoa (eragiketa izkutatzen denean). Meziek harreman estua dute, hau da, masa hedabideetatik proposatutako mezua bat datorrela garai horretan dagoen mezu hegemonikoarekin.

VII. Komunikazioaren Ekonomia Politikoa. (Nicholas Garnham)

20. mendean garatu zen ideia, **Komunikazioa azken finean enpresa bat dela**: informazioa gaur egun enpresa bat dela eta horrela tratatu beharra daukagula. Kultura eta informazioa aztertzeko, jakintza ekonomikoak ezinbestekoak direla esaten dute.

3. KONTZEPTUAK: **BOTEREA, HEGEMONIA, INTERPELAZIOA, DEKONSTRUKZIOA** Planteamendu iraultzailea

- **Michel Foucault (1926-1984) eta BOTEREA**
 - Foucault agertu aurretik Boterea ulertzeko modu bakarra gatazka, zapalketa eta biolentzia zen (Errepresioa eta indarra). Foucaultek ez du hau guztiz baztertzen, baina forma berri bat aztertu zuen Frantziako Iraultzaren ondoren sortutako gizarte modernoak boterea uler zezaten, bere ustetan eraginkorragoa den boterea (errepresiorik erabiltzen ez duen boterea planteatzen du)
 - Boterearen ekintza subjektuak diziplinatzean datza: subjektuek jokabide eta balore jakin batzuk bere egitea, normalizatzea, arau barneratzeari deitzen dio diziplinatzea. **NORBANAKOEK ARAUA ZENTZUZKO BEZALA BARNERATZEA** (klabea). Hor errepresioa ez da ikusten, normalizat hartzen dituzu arau horiek eta horregatik barneratzen dituzu.
 - Foucaultek boterea egiarekin lotzen du: zein gorputz da normala eta zein patologikoa? Beretzat boterea eta egia zientziak markatzen du, zientziak diolako da egia eta horrek ematen dio boterea, Foucaultek proposatzen duen botere hau eraginkorragoa da, ideologiarekin zerikusirik ez duen egia delako.
 - *Alicia en el País de las Maravillas* adibidea
 - Botereak ukaezinak diren EGIA(k) sortuz egiten du lan: **JAKINTZA** norbanakoak diziplinatzeako gaitasuna duen mekanismoa da. “Egi erregimenak” sortuz, nor den normala eta nor eroa/okerra definitzen

du. Botereak funtzionatzen du egiak sortuz, eta ez hainbeste erreprimituz: “egi erregimenak” esaten die hauei. Boterea jakintzarekin lotu egiten du. Jakintza jakin batzuk dira, adibidez zientzia, egi erregimena zein den esateko eskubidea duena. Gizarte modernoetan agertzen diren erakunde ezberdinak laguntzen dute egi hori barneratzen, erakunde ezberdinek subjektuak diziplinatzen dituzte adb, ospitaleak, fabrikak, eskolak...1926-1984)

- Ikusezina (orain arte esan dugun bezala)
- Nonahi dago: guztion arteko harremanetan, guk gauzatzen dugu, pertsona bakoitzarekin ezberdina da
- Hainbat norabidetan gauzatzen da
- Nobanakoen elkarrekintzetan lan egiten du: botere harremanak
- <https://www.youtube.com/watch?v=pYgvAqJqxUg>

Edozein Jakintza/Diskurtsok du “egia erregimenak” sortzeko gaitasuna?

Giza ekintzen zergatia eta nolakotasuna ulertzeaz arduratuta dagoen historiari ez zaizkio, erudituari gertatzen zaion bezala, diskurtso guztiak interesatzen (...) [baizik eta] gizabanakoak era arrakastatsuan interpelatzea lortu zuten horiengatik du interesa; norbanako horien “ni”-ari eta beren munduaren nolakotasuna eraldatu edo finkatzea lortu zuten diskurtsoak interesatzen zaizkio. Pertsonen bizimoduan eta egunerokotasunean eragina duten diskurtsoak interesatzen zaizkio. [eta zeintzuk dira diskurtsoek eraginkortasun hori izatea posible egiten dituzten baldintzak?] (...) diskurtsoak, lan egiten duen gizarte horren iraganarekin, orainaldiarekin eta etorkizunarekin erlazio emankorra ezartzeko gai izan behar du. (...) subjektibotasunetan sustraituta dauden elementuekin konektatu beharko du; erretorika berriak oinarri horren gainean egingo du lan. Orainaldiarekiko harremanean, diskurtsoaren igorleak legitimitatea izan behar du eta bere mezua helarazteko bitartekoak eskuragarri izan behar ditu. Gainera, interpelazioa emozioak eragiteko gai izango da, hau da, zuzentzen den subjektuarengan ez du soilik erreakzio intelektuala sortuko. Orainaldiko testuinguruan egonezina edo estutasuna dagoenean bereziki, diskurtso baten arrakasta etorkizun irudi bat, geroaldi desberdin bat proposatzeko edo eskaintzeko bere ahalmenak baldintzatua egongo da.

Nerea Aresti (2010): *Masculinidades en tela de juicio. Hombres y género en el primer tercio del siglo XX*, Cátedra, València, 20-22 orr.

- **Antonio Gramsci** (1891-1937) eta **HEGEMONIA kulturala** (Ikasketa kulturalak berreskuratzen duten kontzeptua da)
 - Marxismotik, kulturaren garrantzia azpimarratu zuen gizartean hausnarketan.
 - Dominazio tresnak: Indarra, errepresioa eta “hegemonia kulturala” gizarte jakin batean lortzen da arau batzuk hegemoniko bihurtzea. Mundua ikusteko modu jakin bat orokortu egiten da, langile klaseak baldintzatzen dituen hegemonia kulturalaren bidez. hezkuntza eta hedabideak dira hegemonia kultural hori gauzatzeko tresnak. Langile klasearen potentzia iraultzailea desagertzea lortzen dute hala.
 - Kontrol Soziala politikak eta ekonomiak kontrolatzen du baina ezin da ahaztu kulturak ere Kontrol Sozialean eragina duela, esparru kulturala ere funtsezkoa dela dominazioa lortzeko. Antonio Gramsci izango da lehenengoetarikoa dominazioa eta kontrol soziala baldintzatuta daudela ekonomia eta politikatik esaten, baina baita ere KULTURATIK (garrantzia handia eman zion honi).
 - Masa hedabideek mundua ikusteko moduak orokortu, langile klasearen jarrerak eta ekintzak baldintzatuz beren kapazitate iraultzailea desaktibatzen.
 - **Raymond Williams:** (ikasketa kulturaletako kidea) 60. hamarkadatik aurrera, hegemonia kulturalaren kontzeptu hau berreskuratuko du, eta erresistentziaren aukera, hegemonia dominazio posizioa (indartsua dirudien arren), beti da ezegonkorra eta erresistentzia egin dakioko.
 - Klase boteretsuak eta indar kapitalistek klase xumeengan gauzatzen duten indar eta errepresioarekin batera, “hegemonia kulturala” erabiltzen dute dominaziorako.

- **Louis Althusser** (1918-1990) eta **INTERPELAZIOA** (Ekintza linguistiko bat da. Darse por aludido, norbaitek zuri esandako hitz horretan identifikatua sentitzea)
 - Kontzeptu honek harremana dauka marxismoaren barruan egiten diren planteamendu berriekin. Kultura sartzeak malgutu egiten du marxismoaren planteamendua.
 - «Estatuaren aparatu ideologikoen» (klase boteretsuaren ideologia) erakunde ezberdinen bidez transmititzen da, aurrez esan dugun bezala gutxi gora behera. Eliza, Hezkuntza, Sindikatuak, Familia... norbanakoak sortu [“subjektuak errekrutatu”] eta honek errealitateaz duen irudia sortzen dute interpelazioaren bidez. Botereak

ideologiaren bidez subjektuak interpelatuko ditu eta subjektuak interpelazio horretan bere burua onartzean ideologia hori bereganatuko du.

- INTERPELAZIOA: Norbaitek esan duen zerbaitetan zure gorputza eta zure burua errekonozituta sentitzea. Zure burua eta zure gorputza onartze horrek dakarren guztiarekin (sozialki, ekonomikoki, kulturalki...) norbanako hori identifikatua sentitu bada subjektu politiko bat bihurtzen da.
 - ¡Zu emakume! esaten badu norbaitek eta zuk buelta ematen duzu, identifikatua sentitu zarelako, zuk hor zure burua onartzen duzu eta hori da interpelazioa, ekintza linguistiko bat da.
 - Nivea men iragarkia, 2015.

<https://www.youtube.com/watch?v=N0Jc5G8JxLo>

Iragarki honetan “hombres” hori da interpelazioa, eta interpelazio bakoitzaren atzean jarrera politiko bat dago. Adibidez, galdetzen badu ea nor sentitzen den gizon, oso posiblea da norbait gizon sentitzea eta ondorioz, interpelazio hori baiezkoa izango da.

El nuevo gran paso de la marca para **democratizar el cuidado** de la piel del hombre, ofreciéndole una herramienta (...) para que hasta los **hombres más prácticos** puedan cuidar la piel de su cara, cuerpo y manos **de forma sencilla, intuitiva y sobre todo muy masculina**. Una extraordinaria crema muy versátil, no grasa y de rápida absorción, que resuelve las retinencias de muchos hombres para adoptar el hábito de cuidar su piel (...).



Según la responsable de la marca NIVEA MEN: “Se trata de un spot con el que (...) queremos llegar a todos lo hombres para que incluso aquellos que hasta ahora no utilizaban cremas hidratantes conozcan esta nueva herramienta **para dar el primer paso en el hábito de cuidar** su piel. Se trata de una nueva crema que desde su fórmula hasta su envase ha sido específicamente desarrollada para el cuidado de la piel del hombre”.

- Poliziaren interpelazioa: Gizabanako bati zuzenduko zaio —interpelatuko du— «aizu! hor zauden hori!», eta indibiduo hori itzuli egingo da. Era simple horretan, norbanako horren 180 graduko

biraketa fisikoaren bidez subjektu bihurtuko da, zergatik eta aintzatetsi duelako interpelazio hori zehazki berari eta ez beste inori zuzendua dagoela.

- Beranduago ñabardurak interpelazioaren subjektu normatiboak eraikitzeke ahalmenak huts egiten dezake.

- **Jaques Derrida (1930-2004) eta DEKONSTRUKZIOA**

- Hizkuntzalaritza estrukturalistaren eragina:
 - Lengoaia ez da erreferentziala: deskribatu baino, eraiki egiten du. Jakintza batek ez du deskribatzen, jakintza batek eraiki egiten du errealitatea: Ad: Medikuek zure barruko haurra neska dela esaten dizunean
 - Lengoiak historia bat du. Hau da, aldatu egiten da. Objektu bati ematen diogun izena, hitz horren esanahia denborarekin aldatu egin daiteke. Garai batean gizona, eta gaur egun izena oso ezberdin ikus ditzakegu (lehen gogorra, indartsua, para nada presumido... orain ordea, ez du zertan)
- Mendebaldarron pentsamenduak erdiguneak (Egiak, zentroak) sortuz funtzionatzen du. Erdigune hori gainontzeko gauzen neurria da [zentroaren arabera sortu eta definitzen da bestea]. Komunitate batean, maskulinitate heterosexualak dira zentroa eta gainontzeko guztiak "besteak"
- Dekonstrukzioa edozein erdiguneren izaera (naturalizazioa) zalantzan jartzea bilatzen duen irakurketa da. Gure kasuan Europa da erdigunea eta azpigarapena duena, "bestea" afrika. Mundua ikusteko forma bakarra da hau, baina errealitatean ez da horrela, eta Jaquesek hain zuzen hori aldarrikatzen zuen. Berak zioen errealitatea figura anbiguoak bezala funtzionatzen duela

Derridaren esanetan errealitatea **figura anbiguoak** bezala irakurri dezakegu [irakurketa dekonstruktibo bat eginez, zentroa deszentratuz].

